

BILBOKO UDALAK BILBAO GAZTEKO YOUTUBER OFIZIAL AUKERATU DITU BEGOÑA OJINAGA ETA JULEN ARBE, BILBOK GAZTEENTZAT ESKAINTZEN DITUEN AISIALDIKO PLANAK ZABALTZEKO

- Aukeratutakoak Bilboko 22 urteko neska bat eta Bilboko 18 urteko mutil bat dira. Epaimahaiak kontuan hartu ditu gazte biek kameren aurrean erakutsi duten jarioa, euskara-maila eta aurkeztutako bideoen kalitatea.
- Bilboko Udaleko youtuber berriek, 2018ko urritik 2019ko apirilera bitartean, hilean bideo bi egingo dituzte, gaztelaniaz eta euskaraz, Bilbok gazteei eskaintzen dizkien aisialdiko alternatibak azaltzeko.
- Bideoak [“Bilbao Gazte”ren](#) Youtube kanalaren bidez zabalduko dira.

(*Bilbo, 2018ko irailaren 28a*).- Bilboko Udalak [Bilbao Gazteko](#) 2018-2019ko youtuber ofizial aukeratu ditu **Begoña Ojinaga** eta **Julen Arbe**. Epaimahaiak gazte biek kameren aurrean erakutsi duten jarioa, euskara-maila eta bideoen kalitatea baloratu ditu.

Aurtengo urritik 2019ko apirilera bitartean, Begoñak eta Julenek hilean bideo bi grabatuko dituzte, euskaraz eta gaztelaniaz, banaka edota binaka, modu dinamikoan eta atseginean azaltzeko Bilbok gazteentzat eskaintzen dituen aisialdiko alternatibarik onenak. Bideoak [“Bilbao Gazte”ren](#) Youtube kanalaren bidez bidez zabalduko dira.

Begoña Ojinaga 22 urteko bilbotarra da eta goi-mailako gradu biosanitarioko ikasketak ditu. “*Gotxu*” izenez da ezaguna sare sozialetan; blog bat eta youtube kanal bat ditu eta bere zaletasunik handienetakoa bideoak editatzea da.

Julen Arbe 18 urteko bilbotarra, Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari dena. Julenek “*Julentzio*” ezizena erabiltzen du sare sozialetan eta youtube kanal bat du. Bere zaletasunak, berriz, bideoen edizioa eta pianoa jotzea.

BILBAO GAZTE

BILBAO GAZTE Bilboko gazteen partaidetza bultzatzeko eta elkarlanean aritzeko Bilboko Udalak duen konpromisoaren adierazpidea da. Horretarako, Udalak komunikazio-tresnak ditu: profilak sare sozialetan ([Facebook](#), [Twitter](#), [Google+](#), [YouTube](#)) eta [web-orri](#) bat, gazteengan eragina duten politika zehatzei buruz euren esku informazio erabilgarria jartzeko.